

**GUY GAUCHER ETA
SANTA TERESA LISIEUXKOA**

Asko eta asko dira Santa Teresitaren bizitzari buruz lan ederrak argitaratu dabezanak. Bai lehen eta bai orain. Gaur egun, Guy Gaucher karmeldarra eta Bayeux-Lisieuxko gotzain ohia dogu distiratsuenak. Ez da erraz izango Teresitaren bizitza hain ondo ezagutzen dauan beste bat aurkitzea. Ezinbestekoa eta ugaria da Teresitari buruz egindako haren lana. Hainbat liburua eta artikulu idatzi eta hainbat hitzaldi emon izan ditu mundu zabalean. Zerbait aipatzekotan, horra hor aspaldian kaleratutako “Histoire d’une vie, Térèse Martin” eta “Pasion de Thérèse”. Biok hainbat hizkuntzatara itzulita dagoz.


Baina lanik aipagarriena, lantaldean bera koordinatzaile eta buru zala, Teresa Lisieuxkoaren obra guztiak zortzi tomotan argitaratua izango da. Lan kritiko izugarria! Hogei urte luze lan egin ondoren kaleratuko dabe: “La Nouvelle Edition du Centenaire” (Cerf-Desclée de Brouver, 1971-1992). Hau bai badala, Teresitaren bizitza eta mezua ezagutzeko baliabiderik ederren eta seguruenak. Esaterako, Teresitaren kartak tomo bitan agertzerakoan, ez dira agertzen Teresitak idatzitako kartak bakarrik, baita berari idatzitakoak eta berari buruz aipamena egiten dabenak be.

Azken urteotan, Guy Gaucheren amets nagusia, Teresitaren erabateko biografia idaztea izan da. Eta lortu dau bere asmo ederra. “Sainte Thérèse de Lisieux, 1873-1897. Biographie” da liburu barri honen izena. Liburu mardula, atsegiña irakurtzeko eta ondo oiñarritutako liburua dogu.

Zazpi kapitulutan agertzen da banatuta. Lehenengoa, Teresitaren familia Alenzonen (1858-1877); bigarrena, Alenzonetik-Lisieuxera (1877-1881); hirugarrena, Notre Dame du Pré Abadiako ikasle (1881-1886); laugarrena, Teresitaren konbertsioa (1886); bosgarrena, Erromako osterea, (1887); seigarrena, Teresita Karmelon (1888-1897); eta zazpigarrena, Teresita bere azken geixoardian (1897. uztailaren 8tik irailaren 30eraino). Badi-tu liburuak azkenean, Teresitaren hil ondorengo etapak ezagutzeko gehigarri interesgarriak be.

Ez da egongo Eleizan beste santu bat, Teresita baino hobeto ezagutzeko baliabide hain ziur eta egiazkoak daukazanik. Ez bakarrik goian aipatutako bere idazlan guztien edizio kritikoa, baita altaretara jasoteko egindako prozesu biak be argitaratuta dagoz. Baita Eleizaren irakasle izendatzeko “Positio” deritxon lan ederra be geure eskuetan daukagu. Aipatzekoa da Santa Teresitaren amaren kartak aspaldian kaleratuta eta gaur egun hainbat hizkuntzataraz itzulita izatea. Teresita jaio aurretik hasi eta ama hil arterainoko alabatxoaren barri interesgarriak berton ditugu. Eskerrak “Vie Thérésienne” aldizkariari (1969-1984) bere familiako artxiboak be argitaratuta dagoz. Haren gurasoen Positio eta ahizten bizitzak be bai. Eta zer esanik ez, haren komentuko artxiboak be arakatuta aurkitzen dira.

Benetan dokumentu asko eta fidagarriak ditugu. Han eta hemen doguzan dokumentuak kontuan izanik, liburu eder bat eskeini deusku Guy Gaucherrek. Hortxe agiri jaku orokorrean eta ondo ziurtatuta Teresitaren bizitza. Bere paregabeko mezua ezagutzeko ondo jatorku. Teresitaren jarraitzaile oso adituak baleiteke ez jasotea holako gauza barririk. Teresita maite eta



haren mezua gehiago bizi nahi dabenentzat, ostera, liburu ego-
kia eta aberatsa izango dalakoan nago.

Halan be, Teresitaren bizitzako gauza eder asko behin beti-
rako sekretupean gelditzen dira. Ez doguz ahaztu behar inoiz
be harek bere Eskuizkribu autobiografikoan idatzitako berbak:
“Hitz gutxitan idatzi berri dudan guztiak, xehetasunez beteriko
orrialde asko beharko lituzke; baina orrialde hauek ez lirateke
sekula irakurriko lurrean”. (A Esk, 75^a)

Eta beste gauza bat be kontuan izan behar da. Teresitak be-
re bizitza idazten dauanean, protagonista ez da bera, Jaungoikoa
baino. Kontatzen deuskuna Jaungoikoaren historia da bere bizi-
tzan. Argi dinotso bere ahiztari: “Ez da, ba, egiaz nire bizitza nik
idatziko dudana, Jainko onak niri egin nahi izan dizkidan graziei
buruz ditudan pentsamenduak baizik” (A Esk 3a)

Hortxe aurkitzen da Teresitaren hil ondorengo arrakasta eta
“ohorezko haize-bolada”. Eta hortik jatorko bere indarra eta
ausardia: “Ai! Arima ahul eta akastun guztiek, arima guztietatik
txikienak, zure Teresatxoren arimak, sentitzen duena sentituko
balute, batek ere ez luke galduko maitasun-mendiaren gailu-
rrera iristeko itxaropena, Jesusek ez baitu egintza harrigarririk
eskatzen, buru-uztea eta esker ona baizik” (B Esk 11).

A. Olea.